nez, ikasle kopuruz eta abarrez osoturiko txostena irakurri ematen zitzaion. Eta hara hemen hauetako txosten batetatik ateratako atal batek dioena:

«Parisen, 1860.eko Iraialaren 23an, On Jose Jabier Uribarren jaunak utzitako testamentuak zera dio:

—Dirutza bat uzten dut... Nautika Eskola bat eraikitzeko nire jaioterria den Lekeitioan. Horren bidez, anitz gazteri itsas-ikasketak eskeini ahal izango baitzaizkie...

1862.eko Iraialaren 23an sortzen da escola; eraikuntzan, On Jose Luis Abaroak, lehen aipaturikoaren lobak, diru kopuru berdinaz laguntzen duelarik...

Izen deiturak

Lekeitioan jaioak:

Antonio Daniel Arana e Iturbe	3
Anastasio de Arana y Goitia	4
Francisco Sebastian Aboitz y Arrizubieta	7
José Miguel Jayo y Orañegui	8
José Andrés Meave y Foruria	10
Sabas Inchausti y Zugasti	11
Ignacio José Goenaga y Pérez	12
Isidoro Ochoa Antezana y Recalde	13
Roque Ochoa Antezana y Recalde	14
Santiago Meave y Labiduria	15
Máximo Lazaga i Zatarain	17
Juan Claudio Bermeosolo y Zubillaga	24
Federico Santiago Olloqui y Basterrechea	25
Gabriel Dunes a Iruretagoyena	27
Román Echevarrieta y Garamendi ⁵	30
Leocadio Anduiza y Zamora	40
Ciriaco Goicoechea y Zamora	41

Elantxoben jaioak:

Antonio M.ª de Arcocha y Urquidi	2
José Antonio Arego y Jauregui	21
Martín Antonio Zavalandiocechea y Zabaran	34
Luciano Gautequiz-gogeascoa y Cortazar	42

Mundakan jaioak:

Lorenzo Cruzalegui y Astalarra	9
Ramón Aberasturi y Uriarri	28
Juan Paulino Gondra y Laida	43

Sortzaileek, ez zuten eskolarik itsas-gizonez trebeak hezitzeko bakarrak sortu, gizarrazoei erantzuna emateko ere sortu zuten. Hala nola, eskolaren bidez, arrantzale txiroen zein artisauen semeek, giza maila igo zezaketen. Ikastegiak, 1862.ean zabaldu zituen ateak. Ikasturte hartan, gure auzokide eta herriak aukeraturiko alkateohia den Roman Etxebarrieta ikasleitariko bat zelarik...

Txosten hau ze urtetako denik ez dakit, baina 1925aren ostekoan dela baiezta dezakete, urte horretako Otsailaren 7ko boletinean argitaraturiko Itsas Ikasketen Estatutoan oinarritzen baita.

1862.eko Iraialaren 30ean ondoko hauetako osotzen Nautikako ikaslegoa:

Zerrendako zenbakia

Ibarrengelun jaioak:	
Tomás Aguirre y Aldamiz	18
Juan Tomás Arandiaga e Iturburu	19
Juan Arandiaga y Aberasturi	20
Berneon jaioa:	
Alfonso M. ^a de Azene y Ocerín	1
Abandon jaioa:	
Manuel Urquiaga y Maruri	16
Natxitun jaioak:	
Juan José Echevarrieta y Ondaro	22
Luis Gregorio Llona e Ibargüen	23
Ean jaioak:	
Antonio Florencio Larracondegui y Urrutia	32
Manuel Benito Goitisola y Landa	33
Manuel Ventura Ugalde y Lauzirica	37
Agapito Erquiaga y Endeiza	39
Arteagan jaioa:	
Manuel Merricaechevarria y Vidasolo	35
Aulestин jaioa:	
Ignacio Calle y Goicoechea	38
Kanpoko ikasleek ostatua hartu behar izaten zuten, egunero joan etorrian ibiltzeko garraiorik ez baitzegoen garai hartan. Gero jakin izan dudanez, baten batek Ibarrenge-lutik egunero joan etorria oinez egiten omen zuen.	
La Coruña-ko Corcubión-en jaioa:	
Antonio Avella y Rodriguez	6
Salinas de Leniz-en jaioa:	
Mateo Basañez y Ochocote	26
Ajangizen jaioa:	
Manuel Zabaran y Embeitia	29
Gasteizko:	
Ernesto M. ^a Chao y Olaortua	31
eta Padróneko	
José Fontela y Alvarez	36

Ondorengo urteetan ikasle kopurua ugari-tuz joan zen arren, 1862.eko ikasturteari berrogeitahiru ikasle hauek eman zioten hasiera.

Beraz, garai hartan, ba zen herri hotan zelako halako ikasle mugimendua. Honen inguruan sortu zenentz estudiantinaren bat? Ezin dut baeztatu, estudiantina hitzak «estudiant» erroa duen arren, estudiantina eta tuna sinonimoak baitira gaztelera.

Orduan, zertarako sartu hemen Nautikanen istorioa? Bada, bertara irakasle gisa etorritako batzuk, Estudiantinarekin harremannak izan zituztelako.

Hara hemen Nautikan ematen ziren gaiak:

Lehenengo mailan:

Aritmetika eta Algebra

Geografia

Irudi lineala

Bigarren mailan:

Geometria eta trigonometria

Geografia

Irudi geografikoa

Ikasle hauen batzbesteko adina 18-19 urtetakoak zen.

Hirugarren mailan:

Kosmografia eta Pilotutza

Fisika

Irudi hidrografikoa?

Zenbat irakaslez osotzen zen 1862ko irakasleen klaustroa ez dakidan arren, bi izen aipa ditzaket: Eusebio M.^a de Azkue eta Antonio Moral.

Bataren lekukotasuna, Eusebio M.^a de Azkue-reна beraren semeak, Resurrección M.^a de Azkue-k ematen digu «Parnasorako bidea» liburuaren arrgibidean:

«Lekeitioko urian 1813ko abereilaren 13an jaio zen; beren gurasoak loane lose-pe Azkue ta Zalbidegoitia, Zamudion jaioa ta osagile urre askotan izanikoa, ta M.^a Ignazia Barrundia ta Atšabal, Lekeitioko alabea, izan zirean. 1873garreneko semidian 13^{an} Lekeitioan bertan il zan.

Zamudion bizi izan zan ume umetatik beren guraso ta anae-arrebakaz. Mutil barringotšua egon zanean Latina ta Philosophia Bilboko S. Franzisko-ko Praileakaz ikasi ebazan; da onentantse iarduan aretan Carlos V-n aldeko gerlari edo gudariakana ioan bearri izan eban. Gerrate-ostean Maroto-n egunea aintzat arrtu ezebalako, itsasorako ikasmenak Ferrolen egin da Piloto-izenaz urreren batzueta itsasoak austen ibilta gero, Berrmeon asi zen itsasorako bearri direan ezaupideak irakasten. Mundakan

beste ainbezte egin eban. Lekeitioko urian Jose Jabier Uribarrendarr biotz andiko errimaiteak itšas-gizonentzako ikastegia sorrtu ebanean, Uribarrenek berak begiz io ta eroan eban ikastegi barri atako irakasle izatera, 1861 garren urtean».

Nautikan, Kosmografia eta Pilotutza-ko katedradun agertzen zaigu.

Antonio Moral, mundu denbora ez dela herri hotan alkate izan denaren aitona dugu, gaztelera zidatzitako letron egilea. Besteak beste hara hemen berak idatzitako batzu:

Escuchad niñas encantadoras
La armonía de nuestro cantar
Y entre dulces caricias sonoras
Pretendemos cariño hallar.

Pues preferimos por ser mejores
Vuestros amores hoy merecer
Cuando pedimos que genorosas
Nos déis hermosas vuestra querer.

La alegría de nuestros cantares
siendo nuncio de dicha y amor
No despreciéis nuestros amores
os pedimos con mucho ardor
Que en este día los estudiantes
buscan amantes llenos de ardor
Y en su alegría niñas amadas
dulces miradas que den calor.

Sentimos mucho lequeitianitas
que nuestros cantos hagan final
Os despedimos niñas bonitas
más no olvidéis lo que es amar
Pues ni penséis que aunque vayamos
nos olvidamos de vuestra faz
Vivid alegres niñas hermosas
hasta que vuelva el Carnaval.

Eusebio M.^a Azkue-ren Parnasorako bidea-n, Aratusteetan abesteko aproposak izan zitezkeen hainbat bertsot dudan arren, Estudiantinak urte desberdinatetan kaleraturiko kanta-paperetan, hauetariko batik ere ez dut topatu.

Dena den bildutako kanta-paperen kopurua ere ez da handiegia, eta, bestalde, Parnasorako bidea-n Resurrección M.^a Azkue-k, aitak idatzitako guztiek ez biltzea ere gerta zitekeen.

Resurrección M.^a Azkue, 13 urte zituenan hasi zen itsas-ikasketak burutzen, eta jaio zen etxearen jaiotearren zergaitia, aita Nautikako irakasle izatean bilatu behar da,



Lekeitioko Estudiantina, aratustetan



DANTZARIAK, 1989 abendua

irakasleei banatu baitzizkieten ikastegiarenguruko etxeak.

Hala ere gaur egungo Estudiantinak abesten dituen bertsotz batzu liburu horretan agertzen dira «ENBASUKO NESKATILEN KANTAK» izenburupean:

ENBASUKO NESKATILEN KANTAK

Aro ona dago, kairantz goazan
kanpoan dabil iparra
gaurrkoa da bai itxasaldia
eztago taitua tsarrua.
Otzaratšu bat
otzaratšu bi
arraina dator
portura beti
besigu, lebatz, sardina ta atun
eta beste asko ganeti.

Palu, ta erremu, bela, ta kordel,
masia ta ura bere bai
sartru dagiguzan tsalupan laster
itxaron barik gizonai.
Otzaratšu bat,...

Arrantzaileak barua ausi ta
kanpora doaz zintzorik
betoz guziak osasunagaz
eta inor bere ez gaisorik.
Otzaratšu bat,...

Errira datozi iparr-aldei
belak betean ontziak
ondo dirudi egun argitan
belan dabilen ontziak.
Otzaratšu bat,...

Berrogei arratz besigu dakaz
tsalupa andia eginak,
ogeta amarr bat tsikerrak, eta
larogei lebatz potinak.
Otzaratšu bat,...

Ogerrikero bat egin dau berrtan
besigu arroiak guziak;
eta amarr lauko ta errdi libreak
lebatz amuan iosiak.
Otzaratšu bat,...

Erbaitseruak orr goian dagoz
arraina iminten narretan;
garribit arin, lagundu daigun
asto ta mando zameten.
Otzaratšu bat,...

Beraz, letra-egilez horniturik aurkitzen dugu garai hartako Lekeitio. Baino, zernolako doinuz abesten ziren letra hauak? Ba al zegoen garai hartako Lekeitio, elkarrekiiko paraleloak diren bost lerroz eta hauen arteko tartez osotzen den pentagrama idazteko gauza zenik?

Kasimiro Etxeberria

Lekeitioko Bandaren zuzendari izandako Kasimiro Etxeberriaren istorioa⁸ «Aldi hartan, tamalez, oso bizitza txiroa generaman. Ozta-ozta irabazten zen, eta, irabazitakoaz, senitarteko beharrizanei ere ezin zitzaien erantzun. Gainera, gure aitak, hamar seme-alaba izan zituen, eta upelari lanak ez zion beharrizanik minimoenak estaltzekorik ere ematen. Udaletxeak, bestalde, ez dio Musika Bandari laguntzarik eskeintzen, eta egoera honetan, hara non aurkitzen dugun gure aita izan zena Bandarako partituk berak konposatu beharrean, Udaletxetik inongo laguntza ekonomikorik jaso gabe (Udaletxearen jarrera hau, laguntzari buruzkoa alegia, ezin dut baiezttatu, zelantzak baititut).

Garai hartako txirotasunari sakrifizio hau gehitzeak, beraren eta Bandako bere kiuden egoeraz arduratzera darama.

Egoera mingots hau gozotzeko, zelango halango bideak proposatzen joan zitzaien orduan alkate zen On Jose Felix Egileorri. Arrazoiak azaldu eta Bandako partaideak zirenen larritasuna agertu ondoren, zera proposatu zion errespetu guziak aurkeztutz: herriko udatarri ospetsuenei, hots, On Paskual Abaroa, On Claudio, On Jose Luis eta beste zenbaiti, serenatak joteko baimeña, haiengandik jasotako eskupekoz guztiengos egoera leundi zitekelako.

Baina, alkatearen erantzuna ezezkoa izan zen eta ihardespaina jaso bezain laster, herriko buruaren prozeduraz larriki mindurik, Bandako zuzendaritzaz kargutiko dimisioa aurkezten du.

Bandako partaide guztiak bat egin zuten zuzendarizarekin eta aste gutxirenean, beste Banda bat sortu, «La Independiente» izenezko.

Handik gutxira, herriko abotsik onenez osoturiko Orfeoia ere sortu zuen. Eta aldi berean, zenbait antzerki lan antzeztu ere. Orduan hasten da gure aita, musika, benetako zaletasunez sentitzen, eta upelari lanean, etenak egiten zituen, habaneraren bat, mazurkaren bat edo beste obraren bat

konposatzeko. Inspirazio une horietan, lantikiko bazter batetara joaten zen, inoren kanturik ez hitzik entzun ez zitekeen bazter batetara eta han, arkatz lohi batez, musika-papea lohi batetan bururaten zitzaina idazten zuen. Gero, beraren idazkaria deitu, ni neu, instrumento bakoitzari zegokion papera idatz nezan eta bakoitzari bere to-noa jartzeo.

Istilu ondoren, Alkatea, Banda berri bat antolatu beharrean aurkitzen da, eta zenbait akats salbatu ondoren eratzea ere lortzen du; lehengoei ukatu zizkienak, hauei onartuz.

«La Independentiente»-k ordea, herri arruan jotea galerazita zeukan, eta Ispaster, Mendexa eta inguruetako herrietara joan behar izaten zuen saioak egietara. Behin, Eluntzetan, jai bat antolatu zuten. Bertan, La Independentiente, girozaile gisa agertzen zaigu, eta ordu berean, Alamedan, Udalaren Banda funtzió berdinatetan. Eluntzetan jende pilo bat biltzen den artean, Alamedan bikote batik ere ez da osotzen dantzan egiteko.

Horrela ulertuko du irakurleak, zernolako garrantzia zeukan garai hartako La Independentiente-k.

Urte batetako Aratustetan, estudiantina bat sortu zuten. Burutik behatzera oso dorez jantzi zitzaizkigun: txamarrua orlegiz, praka beltzez eta lumaz apainduriko txapel gorri. Eta egun hauetan izaten den pozez baliatuz, Bermeo, Gernika eta Elantxobeko herriak zeharkatu zituzten. Hain jantzi dorez apainduriko taldea melodia gozoak joten hasi zenean, adurra zeriola geratu zen entzulegoa, denen onezpena bapatean irabazten duelarik mororroturiko talde instrumentatuak. Estudiantinak izugarrizko arrakasta lortu zuen eta herri guzti horien begikotasuna ere.

Herri hauetatik egindako biraz, pozik itzultzen dira beraien herrira.

Gure aita, 1852.ean jaio zen, eta bere bizitzan ez zuen gutiziariak izan. Beraren nahi bakarra, berak konposaturiko partituen bidez Udalaren eta herri maitearen begikotasuna irabaztean zetzan.

Hauetariko partitura batzuk, nire eskuetan daude. Ez konposatu zituen guztiak, lan eskerga egin baitzuen, baina bai batzuk, esan dizudanez.

Beste eskutitz baten bidez, Eugenio Etxeberriak, Rufo Atxurra izendatzen du partitura hauen jagole, «gure aita izan zenaren gomutak irmo jarrai dezan». Baina, Rufo-k

jaso zituen ale bakarrak, berak, Eugenio bizi zela eman zizkion bakarrak dira. Hil ondoren, sendiak eraman zituen beste guztiak, gero galitzeko dirudinez.

Eta hemen bukatzen da gure aita izan zenaren istorioa».

1983. eko Irailak 1

Egun honetan DEIA egunkariak, Lekeitioko Sanantolin jaiak direla eta, eranskin bat argitaratzen du. Bertan, Diaz de Argandoña-k izenpeturik, Estudiantinari buruzko artikulu bat agertzen da.

Artikuluan, kazetariak, ondoko hauek jartzentzu ditu Jose Bengoetxearen ahoan:

«Estudiantinak joten dituen kantata, mazurka eta abarrak, ezin zitezkeen upelari batek idatzia izan, armoniaz jakitun zeren batek konposatuak baizik. Eta, nik, zalantzak gabe baiezta dezaket, horien idazlea Ravel izan zela.

Baina hau, ez da baieztagen merke bat, oinarri sendoak baitauzkat horretarako: Estudiantina 1905, urtean jaio zen gutxi bat gorabehera, Nautika eskolaren sor-kuntzaz batera, eta garai hartan, Ravel Lekeitiora izan zela frogaturik dago, beraz, ez da harritzekoa bi gertaera hauek elkarrengako loturariak izatea».

Ravel (Maurice)⁹

1875. urtean jaio zen Zibourean: eta 1937ean hil Parisen. 1889an Pariseko Kontsebutoriorioan sartzen da. Bertan, musika ikasketak CH de Rériot, E. Passard, A. Góddadegi eta G. Farré irakasleen eskutik burutzen ditu. Munduko lehen gerra nagusian, Parisen aurkitzen dugu, gero, 1920an Montfort-L'Amayry-n kokatzen duelarik bizi-lekuoa. Ibilitoria izanik, 1928 inguruan Europako eta EE. BBetako zenbait herri ikusten ditu. 1923an buruko gaixotasun batek jota, osasun arazoak jasan zituen, 1937an ebakuntza baten ondorioz hil zelarik.

Nahiz eta landu zituen jenero guztiak maixotasunez egin, adierazpenik lortuenak musika instrumentallean aurki genitzake.

Berak idatziriko eta argia ikusi izan duten lanak ondoko hauek ditugu:

Habanera (1895)

Gaspard la nuit (1904)

Valses nobles et sentimentales (1911)

Abotsetarako idatzi zuena, banan edo bilduma desberdinatetan argitaratutako 22

abestik osotzen dute:

Schhéhérazade (1903) kantu eta orkestra-rako

J. Renard-en Histoires Naturalles (1906)

S. Mallarmé-ren Troi poemes (1913) kantu eta instrumentalerako

Parny-ren Chansons Médécasses (1925-26) kantu, piano, txilibista eta violontzelorako.

P. Morand-en Don Quijote et Dulcinea (1932)

Abesti armonizatuen hiru bilduma:
Cinq chansons populaires grecques (1907)

Quatre chansons populaires (1910)

Deux mélodies hébraïques (1914)

Instrumentalerako idatzitako artean hauek ditugu:

Habanera (bi piano, 1895)

Mimú Antique (1895)

Pabana pour une infante difunte (1899)

Jeux d'eau (1901)

Ma mère l'oie (1908)

Valses nobles et sentimentales (1911)

Eta bi kontzertu pianc eta orkestarako.

Kamaras-musika:

Tzigane (1924) biolin eta pianorako

Rapsodia española (1907)

Le Valse (1919-20)

Bolero (1928)

Maurice Ravel musikariaren euskaltasuna¹⁰

Euskalduna izan ote zen Ravel?

Bere agerpenetan beti azaltzen zen euskaldun. «Esquisse autobiographique» dela-koan argi ezarri zuen bere euskalduntasunaren fedea. Euskera onto zekiela (naiz eta Pariseko ikutuarekin mintzatu) oso ezaguna da. Bere aita suizoa zen eta ama euskalduna, baina Maurice Ravel-ek «eus-kaldun» deitzen zion bere buruari. New York-en bigarren kontzertua aman zue-ean, zoriontza joan zitzakzion zale batzuk: «Judutarra izango zara, noski», gal-detu zion batek». Ez jauna, izan zen Ravel-en erantzuna, ez naiz judutarra ez erlijio aldetik (nik batera ez bait dut) eta ez arraza aldetik: euskalduna naiz eta».

Zergaitik ez zuen «eus-kaldun» musikari idatzi?

Arazo konplexua eta luzea izango litzate-ke galdera horri behar den bezala erantzuntea. Bai bere estetika aldetikako eritzia edo sinismenak, bai bere musikaren konzeptio guztiz pertsonala edo «naturala» (eta hori

ikusteko Vladimir Jankelevich-en estudioa Roland Manuel-en biografia baino baliagarrriagoa izatea baliteke) eta bai bere musika onartzen zuen entzulegoaren aldetik, «nacionalismo» musicala bidezko ez zela argi dago.

Beste herrietako musika erabili zuen, horiegia da. Adibidez, frantses edo Madagascar-kantuez baliatu zen. Baino «nacionalismo»ak agintzen zuen jokabideetatik kanpo, beti.

Dena den, abesbatzerako euskal kanta batzuk idatzi zituen eta baita orkestra eta pianorako obra egiten ere hasi zen «Zaspia bat» izeneko.

Azkenean, «Zaspia bat» hori burutu gabe gelditu zen, Ravel-ek berak Aita Donostiarri aitortu zionez, «gai herrikoiak desarrollatzeark zentzurik ez zuelako» beretatz eta, bestalde, melodia herrikoiak soil solik haratu eta jantzi armoniko batez hornitzeak ere ez zuen ez meriturik ezta funts sendorik ere.

Euskal musika herrikoien zita testualak edo prestamoak aurkitu nahi duenak aurkituko ditu, halere, Ravel-en obra batzuetan. «Concert en Sol»ek berak jaso zuen, bestea beste, «Zaspia bat»-erako prestatuta ziren material batzuk. Baita «Ezker eskuanrentzako Kontzertuan» ere aurkitzen du inork biribilketak erritmoaren ohiartzunik. Eta beste obretan ere.

Guzti hori, nabaria izan arren, oso bigarren mailakoa besterik ez da Ravel-en obran. Euskalduntasuna bere independen-tzia-egarriaren agertzen zaigu, batez ere, be-re individualismo tingoan. Musika hutsek, musika puroa egitea zen helbururik nagusiena, egilearen izatea ere alde batera utzi edo guztiz zomorroturik izkutatua obraren barnean. Horrela, bitxikeria litzateke bestelako konnotazioak bilatzen ibiltzea, Ravel-en euskalduntasuna gure artelik kanpo fro-gatzeko».

Ondoren, Kasimiro Etxeberriak idatziriko eta Eugenio Etxeberria tarteko dela Rufo Atxurra-ren eskuak gureganaino iritsi diren partitura batzuk agertzen ditut. Ez gordetako guztiak, denak ere asko ez dira baina, zeren gehienak musika hutsezkoak direnez gero, pentagramaren sekretuak ezagutzen ez dituen batek horiek ulertzeraoan oztopoak izango bait lituzke.

Partitura hauetan musika eta letra, bate-rra agertzen dira eta irakurlerik gehienek ezagutu ere ezagutuko dituzte.

Dena den, izenburuaren ondoan agert-

zen den dataz konturatzea da niri gehien interesatzen zaidana une honetan, gero frogatuko dugu teoremarako baliogarria izango baita.

Hortik at, konturatzen bat urtetan eta zenbat jendeak kantatuko zituen abesti hauek, aurtengo Estudiantinaren repertoriunean ere agertzen direlarik. Ez da asmatuko ez, marka hau hautsiko duen kantari, ez popik, ez rockik ez eta ere folkik.

Kasimirok Aratuste egunez jasoko balu burua, bere munduan aurkituko litzateke zalantzarak gabe. Ez lukete zori bera izango letra egileek, belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho ikasitako letrak aldaketa nabarmenak jasaten baitituzte sarritan. Lekuko, ondoren jartzen dudan 2. Jotaren letrak jasandakoa Lekeitioko sendi ezagun batetan:

En donde Reina, donde Reina
la Estudiantina...
Siempre siempre domina
la dicha y el Placer
(denboraren eraginez)

Erlegiña, Erlegiña
Erlegiña la Estudiantina
siempre siempre gabíña
la dicha del plater.

Eta zenbat horrelako....

Teorema

Kasimiro Etxeberria-ri eta Ravel-ri buruz idatzitakoak hipotesi gisa harturik, Estudiantinaren repertoriuumik ezin zezakeen Ravel-ek idatzi.

Frogapena: Datak konparatzea besterik ez dugu, begibistako bateraezintasun batera iristeko.

Ondorioa: DEIAko artikuluak aipatzen dituen oinarri sendoak, ez dira hainbestera-nokoak.

Beraz, hasieran planteatu genituen galderak erantzun ditugu. Kasimirok sortutako estudiantinaren aurretik besteren bat zementz, ez dakigu, baina gaurdaino iritsi denaren hildoa berak markatu zuela argi da-go, gaur ere, beste batzuren artean berak konposaturiko melodiak joten baitituzte.

Higinio Etxeberria (1883-1950)

Kasimirok lekuoa beraren seme Higinio-

ri igaro zion. Eta hau da mende honen erdi ingururaino edo, lekuo horren eramale.

Higinio, Konpainiako eleizan bateatu zuaten, Andra Mariaren berrikuntza lanak zi-rela eta itxita bartzegoen.

Bankuan lan egiten duen arren, bere mundua Estudiantinarena da.

Aitagandik jaso zuen musika-konposatzeko grinari tinko eutsi zion azken arnasa-raino, eten gabe ihardun zuelarik lan ho-rettan.

Gerra aurrea bizi izan duen bati, Estudiantina aipatzerakoan, lehenengo ezpaineratzen zaiona Higinioren izena da. Egin fraga.

Talde barnean bere eginkizuna repertoriomaren mantendimenduan zetzan, material prestakuntza berari zegokion eta baita dinamizatzaile lana ere. Estudiantinaren betetako militantea dugu Higinio.

Berrikuntzak gogoko zituen, Kasurako, 1949an repertoriuma eguneratu behar zela eta, letra berriak asma zitzan Rufo-rengana jo zuen, honek errekadua Eusebio Erkiagari igaroz. Musika, Higinio berak konposatzuen du.

Baina, saioetarako denborarik ez zegoela etahain denbora gutxian gauza berrik ezin zitekeela ikasi eta beste aitzaki batzuk zirela medio Higinioren musikaz abesteko ziren Eusebio Erkiaga-ren bertsoak kaleratu gabe daude gaur ere.

Hara hemen bertso horiek, aurkitu ditu dan bezala idatzita:

Emen gatoz gu auren be
igazko gaztediya,
soñu eder ta kantakin
poztu nairik geure erriya,
urten andrak gaur kalera
yantzan bizkor eitera,
lapikuak erre arte
ez yuan iñor be etxera

Neskatilla gaztiak
larrosak lakoxiak,
edonun ikusten doguz
Arranegi ta Atian,
gau ta egun eskatzen gagoz
Aita San Antoniori,
nobiyo bana emoteko
Lekeitioko neskari

Dirua eskatuteko
lotsaz beterik gagoz,
guk batzen dogun guztia
da zeuk ondo ibilteko,
tranbiyak ipiñi doguz

Arropañetik Talara,
gero geutzat apariya
ezer gelditutenean

on biyen-bitartean

LELOA

Zar eta gazte yantzan egin
Danak on umore onian
egon gero ixil ixilik
Euen Ama yoten dogunian.

Kantaren musikarik ez dut aurkitu, baina hara hemen leloarenaren:



Biografiari buruz gauza zehatzegirik ez dakidan arren, bizpahiru gauza aipatuko ditut: herrena zela, ezkongabea eta atzean izan zela ondoko kanta honek adierazten duenez.

la mutilik, arin ibili
sasikopetsu hotzitu ez daien,
Higinio etzi doia ta
etorri despedida emoten¹³

Bandako Musikomaiorrak¹⁴ Beobide

1915. urtean, Lekeitioko Udaletxeak, Bandako zuzendari plaza oposiziora ateratzen. Hiru aurkezten dira lehiaketara: Oñate, Beobide eta Gainza.

Oñatek eskuratzentzu du lehen postua, Beobidek bigarrena eta Gainzak hirugarrena.

Urte batzutarako, Oñate geratu zitzaien Bandako zuzendari, baina, edanarekin arazoak zituelako edo, denbora gutxirenen mugan zuzendaritza utzi beharrean aurkitzen da. Orduan, lehiaketako bigarrenaren bila hasten dira. Hau, Argentinan zegoen. Gutun bat idatzitzen arazoa azalduz, gaur ere erantzuna iristeko dagoelarik. Beste biderik ez zeukatela eta, Gainza deitzen dute elkarriketa batetara. Honek, une hartan Lekeitiora etorrik ez zitzaiola interesatzen ihardesten die, eta horretan zihardutela, hara non agertzen den Beobide, lastozko kapela batez burua estalita.

Lastozko kapeladun ehitzari amorratua honen esku geratzen da urte batzutarako Lekeitioko Banda.

Ekarpen bikainak izan zituen Estudiantinak Beobideren garaian, musika-konposatzaile bikaina baitzen. Besteak beste, berak konposatzailekoak dira gaur egun Athletik-ek ereserki gisa erakiltzen duen Altza Gaziak, Lekeitioko Ikurrinaren Eraserkia eta Estudiantinak oraintsu aterata daukan diskoko Gabota 2,4 eta Mazurka.

Bandako zuzendari zela, berak zuzenetan zituen Estudiantinaren saioak eta bioliana maiotasunez jo ere.

Inoiz Bandarekin Estudiantinaren papera betetzea ere gertatutu zitzaien. Hori ez zen, bestalde, inongo arazoa beraientzat, Estudiantinaren zati handi bat Bandako musikariz osotzen baitzen.

Anekdoa gisa, herri guztiek ezagutzen duen «Dolores estaba...»-ri buruz zera esan behar: gehienekoak uste duenaren

aurka, ez zela Beobidek konposatura. Oñate-ten denboran hasi omen zen Lekeitioko Banda kanta hori joten, baina Beobidek zuzendaritza hartu eta laster, baten batek, asmo bihurrien batez edo, letra jarri zion. Orduan uzten dio Bandak kanta hori joteari.

Larreta

Beobideren ostean Larreta aurkitzen du gaur Bandako zuzendaritzan. Honek, ez du parte zuzenik hartzen Estudiantinan, baina bai, melodiaren bat edo beste konposatu. Kasurako, Eskolapea izenez gaur egungo Estudiantinak joten duen vals-a berea da.

Behin baten, Estudiantinak ez zen osotu eta Larretaren Bandari tokatu zitzaien hura ordezkatzea. Banda hartan, beste edonon legez, zaharrak eta gazteak zeuden, eta denak nahi zuten asteartea libratzea, Aratusteko mobidarki handiena egun horretan ematen baitzen. Orduan, hauzia zelan konpondu behar eta, bitan zatitzen dute Banda, egunak zozketatuz. Zaharren alde iritzen da hauzia.¹⁵

Larreta dugu gerra aurretiko azken zuzendaria.

Gero gerra, ondoren ixilunea eta 1948an, Higinio-ren eskutik Estudiantinaren berragerpena.

1948 hartan, ondoko repertoriuma eskein zuten:¹⁶

Aratuste eguna dela ta
Kalera gaur urteten dogu
Gendia poses betetziarren
Alegiña egingo dogu
Negu txarrari
kazu einbarik
Sabela bete
gaur egizu
Antxo ederra
agertutzian
Sorrik guztijak
pagakozuz.

Escuchad niñas encantadoras
La armonía de nuestro cantar
y entre dulces caricias sonoras
Pretendemos cariño hallar
Pues preferimos
por ser mejores
Vuestros amores
Hoy merecer,
Cuando pedimos
Que generosas
Nos déis hermosas
Vuestro querer.

Lekitxo lako erri ederrik
Iñunbe ezin dogu billatu
Bere plai eta kai ederrakin
Ezin lezake guk ukatu¹⁶
Bertoko jende
amabli andik
Itxoten dogu
guk saria
Poses beterik
Selebratzeko
Gaurko gabeko
Apariña.

La alegría de nuestros cantares
Siendo nuncio de dicha y humor
Nos despreciéis nuestros amores
Os pedimos con mucho ardor
Que en este día
Los estudiantes
Buscan amantes
Llenos de ardor
Y en su alegría
niñas amadas
Dulces miradas
Que den calor.

Talatik eta portaleraíno
Bana banaka esangozu
Politagarik Lekitxo baño
mundu guztian ez daukazu
Arrantzaliak
Euren lanian
Bai atetarrak
Eurenian,
Ipiñi daigun
gure Lekitxo
Erri guztien
gain gainian

Sentimos mucho lequeitianitas
Que nuestros cantos hagan final
Os despedimos niñas bonitas
Más no olvidéis lo que es amar
Pues no penséis
Que aunque vayamos
No olvidamos
de vuestra faz,
Vivid alegres
niñas hermosas
Hasta que vuelva
el Carnaval

Francisco Garcia

Gerra ostean, gramola bat eta itsu batek jotako akordeoia ziren iganderoko dantzal-

dien animatzaile, harik eta 1943an Francisco Garcia-k Musika Banda osotzeko agindua hartu zuen arte.

Gerra aurreko musikariz osotzen da Banda, historiara «direktore txiñiña» izenez igo-ro den Francisco Garcia-ren zuzendaritzapean.

Zuzendari honek ez du Estudiantinarekin loturak.

Armando Montaña

Hau dugu aurrekoaren ordezkari Banda-k zuzendaritzan. Berari buruz dakiguna: esne txarreko zela eta konposizioren batzuk utzi zituela.

Honek ere ez du loturak Estudiantina-rekin.

Luzio Goikoetxea

«Luzio barberua» izenez ezagutu genuen gizon jator eta ospetsu hau, gazte gaztetatik hasi zen musika munduan. Bandako klarineteko jole, gerra aurreko eta osteko txistulari, Estudiantinako partaide eta Armando Montañaren ondoren, Bandako zuzendari. Gero, zuzendari orde.

1967an egin zitzaien ongi merezita zeukan omenaldia.

Miguel Arrieta

1962.eko Uztailaren 21ean heldu zitzaien Lekeitiora eta Bandako partaideak ezagutu ere ez zituela egiten, batuta hartu beharrean aurkitzean da; egun horretan Yateentzako Atun-arrantzak lehiaketa bat zela eta, Musika Bandak «Anteron Txamarreria»-ren notak aireratu behar baititu.

Zuzendari honi buruz luze mintza naitekeen arren, datu biografiko bakar bat aipatzena noa hemen, horren lekuoa, ni neu agertzen naizelarik: gu mutil koskorra ginen garai hartan, «la letra con sangre entra»ko garai hartan, zer esaten genuenik ez genekei eskuineko besoa jasota «Cara al Sol» kantatu behar izaten genuen garai hartan, makilakadarri hartu gabeko egunak esku batetako atzamarrez konta zitezkeen garai hartan, beltzunerik gabekoak kontatuak ziren garai hartan, makilakada kopuruia jeitsi ez arren erosario santua errezzatu behar izaten genuen garai hartan, dardarak gabeko egunik ezagutu ez genuen garai luze hartan..., eskolak zer izan beharko



Lekeitioko Estudiantina, aratustetan

DANTZARIAK, 1989 abendua

zukeen, Migelegandik ikasi genuen.

Pertsona bezala tratatu gintuen lehen maixua, bera dugu, gauza guztiak pazientzia osoz azalduz, eta gutxika gutxika dena ikas daitekeela frogatzu.

Horrexegatik ikasi genituen eta betirako, pentagramaren sekreto guztiak, sol eta fa klabeak eta Bandako piezak, Espaňako probintziak baino arinago; eta askoz ere ordur gutxiago sartuta.

Baina dakusagun zernolako lotura duen Migelek Estudiantinarekin.

Lehenengo kontaktoa 1964an hartzendu, bandurria jole gisa. Garai hartako Estudiantinaren buru Andres Ordorika dugu eta saioen prestatzaile Markos Santamaría.

1965ean ere irteten dira, gero urte batzuetarako atsedenaldia hartuz.

1969an, umeen lehen estudiantina sortzen du «Itxaropena» izenez. Estudiantina honen sorkuntza, lehenagokoaren partaide batzuk umeekin batera ibili nahi ez izatean datza. Urte horretatik aurrera, politika arazoagatik boikoteatu ziren Aratuste batzutan izan ezik, urtero iten da Itxaropena.

1969-70eko umeei adina aurrera joan zitzaien, eta orduan «zaharren» Estudiantina sortzea erabakitzentz dute Migelen zuzendaritzapean¹⁷. Talde berri honek, lan honetan zehar behin baino sariago aipatu izan dudan diskoak kaleratzen du, izugarrizko arrakasta lortuz.

Beraz, esan genezake, Estudiantinari dagokionez, Migel Arrieta-ren garaia 1969an hasten dela eta oraindik bukatu gabe da-goela.

Baina ibilitako bidea ez da beti leuna izan. Lehenengo oztopoak, partiturarik ezean aurkitzen ditu¹⁸. Eta belarri findunak arin arrapatu arren edozein melodia, hantxe egoten da irakurri gabe ezertzko ere sartzen ez zaiona. Hutsune hau betetzeak, paperak idazterra darama, lan ikaragarria eginez honetan: jendeari tarareatu edo letradunak kanta eraziz, gero armonizatz, bakoitzari dagokion papera idatziz eta bakoitzeko prozesu osoa errepetikatuz.

Berak ere konposatu izan ditu Aratustearako melodiaren batzuk, besteak beste, hainbat aldi zaien dudan diskoan agertzen den Maite.

Gaur Egungo Estudiantinak joten duen repertoriuma, berak armonizaturikoa da osorik, eta ondoko hauek osotzen dute:

Arranegi	Vals
GABOTA 2	Habanera
Otoi	Habanera

Gabota 4 Habanera
Paparduak....

Biribilketak
Habanera la m
Eskolape Vals
Kaltzapintxo

Mazurka

Aittita Makurra

Karraspio

Zumatzeta

Sugelandaria

Maite

Hamalau Kirriskarro

Talatik Portaleraino

Lekitto bai polita

Kukua

Trabola

Kanal de Mantxatik

Otzaratzu bat.

Repertoriu honetan agertzen diren mediodien egileak, Kasimiro Etxeberria, Higinio Etxeberria, Beobide, Larreta eta Miguel Arrieta ditugu, melodia batzuk izengabekoak direlarik.

Goiko zerrendan agertzen diren izean, armonizatu ondoren jarritakoak dira, jatorrian zituztenak jakiterik ez bait dago.

Rafael Rosell

Ofizialki, 1968.eko Uzatailaren 25ean hasten da Bandako zuzendarri legez, nahiz eta hilabete batzu arinagotik saioak prestatzentz aritu. Herriari kontzertu bat eskeiniaz egiten du aurkezpena.

Gaur ere ez dakigu ze arrazoi izango zuen frankismo garai hartako Udaleteek, zuzendaridun Banda batetara beste bat ekarteko.

Bera ikusten dugu, garai hartan kultura mailan mugitzen direnen artean, nazionalismo espainiarren bultzatzaile, «Cruza»-da maixurik geratu ere egiten ez baitzen ordurako.

Euskal kutsua zeukan oro ordezkatzen ahaleginak egin zituen. Agian, hori izango zen beraren nahia «rondalla» bat sortu zuelako; eta ez, rondalla hark zerikusi gutxi zeukalako Aratusteetako giroaz.

Arazo politikoak zirela medio Aratuste eguna boikoteatza erabaki zen urtean, Bandarekin irten zuen kalerik kale. Dekretutz, noski.

Hasieran gogoz lan egiten hasi zen arren, gero hainbat urtetan errepetikatu zituen Bandak «betiko barriak».

DANTZARIAK, 1989 abendua

Beraren lorpenik handiena, Bandan gehien irabazten zutenen hilabeteko soldata, 510 pezeta izatetik 900era igotean datza.

Honek utzi zuenean Migel Arrieta geratu zen zuzendari gisa eta urte askotarako izan bedi.

Honela bukatzen dugu MUSIKO MAIOR-REI buruzko atala.

Estudiantinako eratzaileak

Orain artean aipatu ez ditudan eta Estudiantinaren eraketen zerikusirik izan zutenak sartuko ditut atal honetan.

Andres Ordorika

Estudiantina buru Larreta-ren denboran, nahiz eta kalerik kale, Agustin agertu zuzendari paperetan. Hortik ondoko kantaren letra:

En esta Estudiantina
gauz hoigeitabost mutil
En esta Estudiantina
gauz hoigeitabost mutil
Sei dira, sei pandero ta
hiru flauta, ocho guitarras
cuatro violín, bi klarinetes
saxofón ta Agustin.²⁰

Trebea zen Ordorika antolaketa lanetan eta jendea zirkaten, saltsa guztiak pe-rexila.

Biolin jole Estudiantinan, konposatzale ere badugu; Aupa Lekeitio, Aupa Bilbo eta beste zenbat bereak dira.

Gerra ostean, Higinio hil ondoren, berak hartzen du dinamizatzailé papera eta 1964.ean irtezearen erantzunkizuna ere berea da.

Ordurako, Bilbon bizi zen eta bera agertu arren zuzendari gisa, gerizpeko lana, saioek prestatzea eta abar Markos Santamaría-ren esku daude.

Markos Santamaría

Hamabi urte zituela sartzen da Larretaren Bandan, klarinetea joten du, baina ja-kinminaren eraginez biolina ikasten hasten da, ikasketak berehala burutuz.

Ordorika-ren eskutik sartzen da Estudiantinan, biolin-jole. Higinio betetzen zuen paperaren zati bat betetzea tokatzen zaio talde barnean, hots, material eratzaile eta saioen zuzendariarena. Dinamizatzale

lanetan Ordorika zebilen.

1968.eko Abuztuaren 26an, Turista eguna zela eta, Markos-ek zuzenduriko Estudiantinak, berak konposaturiko Turistak birebilketak estreinatzen du.

Estudiantinak jo izan dituen Markos-ek konposaturiko melodiak ondoko hauek ditugu:

Turistak	biribilketa
Beti gaztiak	vals
Paitxero	mazurka
Jota 1966	jota
Violeta	vals
Lekeitioko haizeak	

Ea nor ausartzen den orain, herri honek ez duela musika idazlerik eman esatera!

Santi Txinguneko....

En casa de Santi
hay buen sitio allí
hay una cocinera
que se llama Antoni.

Horrela errezzaten du kanta batek. Eta Santinean, bertan egiten ziren Estudiantinaren saio eta ospakizun guztiak. Saioak nahiko bustiak, beheko tabernatik urik igoten ez baitzuten. Hura dela esan daiteka Estudiantinaren zentrua, bilgua.

Estudiantinaren Aratusteko eginkizuna bukatu ondoren, hainbat kantak aipatzen duten afaria ere bertan egiten ohi zen.

Afari honetarako menua, urtetik urtera aldatzen zituela argi dago, ondoko kanta hauetatik atera daitekeenez:

Hamalau kirrissarro
daukaguz afaltzeko
beste hiru kolaio eta
arenak postrerako.
Hau dok afaria
ikaragarria,
sabela beteteko
daukat pozgarria.

1929.ean:

Ez daukagu angularik²¹
gaur gabaz afaltzeko,
hain gutxiago dirurik
ezertzko be erosteko,
zeuek dakizue ondo
zenbat diru gaur behar den
sabela beteteko.

1949an izan ote zuten afaririk?

Dirua eskatuteko

Iotsa beterik gagoz
guk batzen dogun guztia
da zeuek ondo ibilteko
tranbiyak ipiñi doguz
Arropañetik Talara
gero geutzat apariya
ezer gelditutene bada.

Jantziak ere aldatzten zituzten, janzkerak hobeto esanda. Garai hartako moden araberia izango zen ala ez? Agian bai, agian ez. Baino aldatzen zituztela argi dago.

Eugenio Etxeberria-k, Rufo Atxurri idatzitako eskutizzean agertzen dena eta ondoko kanta konek adierazten duena ez bait dato bat:

Con sombrero alto y zapatos negros
Kaltzak berriz zuriak,
Con sombrero alto y zapatos negros
kaltzak berriz zuriak,
korbata, korbata dogu
gorria, chaqueta negra
blanca camisa, maskara bardez
denok berdin jantzita.

Ez eta ere kanta honetan agertzen dena eta 28. orrialdekoa. Azken horrek ere ez du antzik 1948.eko, 1964.eko, 1965.eko, gerra osteko nagusien Estudiantinako jantzia; alkondara eta praka zuriak, txaketa urdina. Umeen Estudiantinak, berri, kaiku orlegiz iritzen du.

Kanta Paperak

Sail honetan Estudiantinak urte desberdinetan kaleraturiko kanta-paperak agertzen ditut:

1929.ean:

Paparduak esan eutsan
kolaio kumiari
Gaur daualia bai Lekitxon
besigua ugari,
Ik eztok ezer balio
Gure arrantzaliarentzat
Gutxiago bestentzat.

(leloa)

Au da, bai da
Gaur guk daukagun
Umore ona,
Au da, bai da
Soiñuakin poztutzia da

Por no perder la costumbre
de este Lekeitio sin par
y que retumbe su nombre
hasta por el ultramar
Nuestro saludo ideal
A este pueblo dedicamos
Para nunca olvidar

(leloa)

Amor, amor
Hoy nos brindan
las lindas chavalas.
Amor, amor
Enviamos con esta canción.

Ez daukagu angularik
gaur gabaz apaltzeko,
ain gutxiago dirurik
ezertzko be erosteko,
Zeuek dakizue ondo
zenbat diru gaur be dan
sabela beteteko.

Au da, bai da...

Nos dicen que somos tunos
eso nos cuesta creer
si nos quieren lequeitianas
guapas nos han de querer,
Nos da lo mismo morenas
que rubias siendo saladas
Lequeitianas han de ser.
Amor, amor...

Arpegirik ez daukagu
inori eskatze
diru txikitik eta andira
pozik gagoz artzeko
terrelak jota gagoz²⁴
gutziz asko karnabaletan
egia da benetan

Au da, bai da...

Las chicas que hoy nos quieren
esto conviene saber,
aunque no tengan dinero
alegría han de tener,
en los acordes de un vals
y los compases de jota
hoy su dicha hallará

Amor, amor...

Arranegitar andrari
gorantziak bai danori

karta bi artu doguz
gaur goizian Pasaiatik,
Esten deuskuela aurten
zapran dabilzala ta
emoteko mosu bi.

Au da, bai da...

Lequeitiana de hermosura
y belleza sin igual
hoy vuestra linda figura
proclamamos sin cesar
no podemos contemplar
de vuestra faz la figura
hasta otro Carnaval

Amor, amor...

Eskerrikasko danori
Erriko guztia
Pozez, gaur, entzun dozuenak
gura soiñu ederrak
Agur zar eti gazte
Datorren urteria-artian
Jaungoikua bitarte

Au da, bai da...

1948, 1964, 1965 urteetan, hots, gerra
ostearen nagusien Estudiantinak irten zuen
urteetan, kanta-paper berdinak atera zituzten.
Eta lehen jarri ditugu.

Gero, Migel Arrietaren Estudiantinak hiru
horritan kaleratu ditu hemen bildutako guztiak
eta jarriko ez ditudan beste zenbait. Eta
ez ditut ipiniño, gailduko ez direnaren sigur
tasuna dudalako, ehundakaren esku bait
daude. Izan ere, herri hau izango da «per
capita»z musikaririk gehien duen Euskal
Herriko herria²⁵, honetan ere Migel Arrieta
ren lana nabarmenzen delarik.

Kasimiro Etxeberriaren jaio zen erre
kak, makina bat urte irauan izan du; oraindik
ere, itsaso zabalera iristeko dagoelarik.

Higinio, Beobide, Larreta, Ordorika, San
tamaria, Arrieta... eta izenik gabeko beste
zenbait menditakik jeitsitako urez, erreka
hori ibai batetan bihurtu da.

Baina mende bat inguru busti duen erre
ka horretatik, ez dute lekeitiarrek bakarrik
edan, ondoren ikusiko dugunez.

Mundakako estudiantina²⁶

Gizaldi honen hasieran, lekeitiar batek
hartzen du Mundakako Ospitalea eraikitzeko
kontrata, Saturnino Arretxabaleta-k²⁷. Berarekin arotzak eta ofizio desberdinak
hainbat langile daramatzia lan egitera,
hauen artean Tomas Egileor, Pedro Juan
Arrieta eta Anbris Zugadi.

Egileor eta Arrieta, bertan ezkontzen dira
eta ezkontzaren bidez mundakar bihurtu.

Bi hauek, Kasimiro Etxeberria-ren La In
dependienteak izanak ziren, musikariak
beraz. Eta beraiak kutsatu zuten Mundaka
ko herria lekeitioko Aratusteko giroz, estu
diantina bat sortuz²⁸.

Estudiantina honen bilgua, Tomas Egileorrek
zabaldutako FONDA zen, han egiten
baitziren saio, batzar eta abar guztia.

Azken Oharrak

Estudiantina bat, noski, ez du zuzendari
batek osotzen. Baino partaide izan direnen
zerrenda luze samarra denez alde batetik,
eta Estudiantina desberdinaren konposaketa,
argazkietan ikus daitekeenez bestetik,
hauen izenak ez jartzea erabaki dut.

Azkenetan, zera esan behar: hemen hain
bat iritzi agertzen direla, hainbat jenderen
iritziak esan nahi nuen, baina, batzutan
gauza berari buruzkoak desberdinak izan
direnez gero, niretzat logikoena izan dena
hautatu dudala.

Lagundu didazuen guztioi eskerrik be
roenak.

NOTAS

1. Taberna hauek Arranegi inguruan ko
katzen ziren, Petra Laka-rena Arranegiko
Zabalean. Perutxu-rena Arranegi kalean
eta Seberino-rena kaian. Denak ere metro
gutxitako arradiodun zirkulu baten bar
nean.
2. Eusebio M.^a Azkue. Parnasorako
bidea.
3. Bidé Errealaren adierazle.
4. Kinkirrikoia hartzera gonbidatzen zen
gozotegia.
5. Tomas Neave-ren anaia, «Juventu
des Socialistas»en sortzailearena.
6. Lehen aipaturiko txostenean agetzen
dena.
7. 1876.eko Iralaren 29an, Resurrec
ción M.^a de Azkue y Aberasturi aurkitzen
dugu 241 zenbakiaz ikasle zerrendan. Be
rak ateratak oitztia ondokoak dira:

1876-77 ikasturtean:	
Aritmetika eta Algebra	BIKAIN
Geografia	BIKAIN
Iridi Lineala	NAHIKOA
8. 1877-78 ikasturtean:

Geometria eta trigonometria	OSO ONGI
Geografia	BIKAIN
Iridi Geografiko	NAHIKOA
9. 1878-79:

Kosmografia eta Pilotutza	OSO ONGI
Fisika	ONGI
Iridi Hidrografikoa	NAHIKOA
10. EGUNA egunkaritik hartua.
11. Kautxuz beterik zetorren itsasuntzi
alemaniar bat, gerrauntzi ingeles batek on
doratu zuen Kantauroko uretan, eta kautxua
ez denez gero ondoratzen, kostaldean
agertu zen, hainbat sendi aberastuz horri
esker, Kautxu horren salmentari esker,
noski. Kautxu hori da, hain zuzen ere,
12. Rufo-k kantatu eta Migel Arrieta
pentagramaturikoa.
13. Laro geitamabi urte dituen Carmen
Goitia, Mendiaren alarguna, neska kosko
rra zela kantzen omen zen kanta hau,
Karmenek berak aitortu didanez.
14. Zuzendarri hitza oraintsuakoa omen
da, lehenago, Lekeitio Bandako zuzenda
riak musikomaior izenez ezagutzen baitzen
oren. Orobat elktrikariak, luzelektrikeruak
izenez eta abar...
15. Horrexegatik agertzen dira Estu
diantinak kaleratutako diskoidaren azaleko
iridian. Bandako instrumentoak, anekdo
hau jazo zen egunari dagokion argazkian
inspiratuta dagoelako.
16. Letrak, kanta-paperean agertzen di
ren legez hartzitut. Akats eta enparau
guztiek.
17. Talde berria ez zuten lehenagoko
Itxaropanakoak bakarrik osotu, talde bar
nean zenbait estudiantina zale ere aurki
bait daiteke.
18. Partitura asko erre egin ziren, batzuk
Herriko Eskolak batera, beste batzuk ex
teren batetako garbararen batetan...,
beste batzuk aldendu, gauza da ze, ez
zegoela inongo partiturarik.
- 19.
20. Gizon xelebrea zelako jartzen zuten,
ez musikarik zekielako.
21. 1932an afari bat egin zuen kuadria
batek Burdinazko tabernan, gaur Berriztar
raren bodega dagoen lekuaren. Eta afaltze
ko angulak ekarri zituzten Debatik, kiloa
pezeta bitan. Rufo-k eman dit honen berri,
bera ere bertan baitzen.
22. terrala jota: ez dago zereginik.
23. Elitekoak ez dira gehiegiz izango,
baina «musikeruak» hainbat.
24. Estudiantina honen sortzailea izan
zen Tomas Egileorren 82 urtetako alabak
aitortua.
25. On Ignazio Arretxabaleta abadea
ren aita.
26. FONDARI buruzkoa, 1974an argita
raturiko «Mundakako Aratusteak» liburutik
hartua.

LEKEITIO



euskal
dantza

henrikoraren



zoinua

- 1.- HABANERA (K. Etxeberria)
- 2.- PASODOBLE (K. Etxeberria)
- 3.- ESTUDIANTINA-Jota (K. Etxeberria)
- 4.- ESTUDIANTINA-Jota (K. Etxeberria)
- 5.- MAZURKA (K. Etxeberria)

Habanera n.º1 por Camino Colomón (Orio, 1895) orquesta

2

కృష్ణ మాటల ప్రాచీన కథలు

3

46

DANTZARIAK, 1989 abendua

DANTZARIAK, 1989 abendua

Jota Estudiantina N: 1 - Preludio Estudiantil año 1895

Jota Estudiantina N: 1 - Preludio Estudiantil año 1895

1. *Primero, ritmo...*
en un van los de nriugos...
Suave hamon del carmen...
que no dulce es el canto...
la la... brios un poco brío...
en el uno de una cosa a otra s...

2. *ca... ria... zan...*
sí... tienen... da le la la...
que no dulce es el canto...
la la... brios un poco brío...
en el uno de una cosa a otra s...

3. *B : B :*
8 : 8 :
8 : 8 :
8 : 8 :
8 : 8 :

4. *Sal con este sol que no quede dale carmen*
de los van los van...
Tan grande nriugos que no se muere que no viva la
tarima y goza...

5. *Canto ritmico*

4

A handwritten musical score for 'Mazurka for Camille Chauvin' (Op. 20). The score consists of five systems of music, each with two staves. The top staff uses a treble clef and the bottom staff uses a bass clef. The key signature varies between systems, including B-flat major, A major, and G major. The time signature is mostly common time (indicated by '8'). The music features various note heads (solid dots, hollow circles, crosses), stems, and beams. Some measures include rests and slurs. The score is written on five-line staff paper.

5




Bizkaia beti

Gure herriaren aurrerapenagatik.
Mileurteko eta gaurkoa dan gure kulturagatik.
Gure herritarren ametsengatik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagatik.
Gaur, atzo eta gero Bizkaia.
Bizkaia beti.

Siempre Vizcaya

Por el progreso de nuestro pueblo.
Por nuestra cultura, milenaria y actual.
Por las ilusiones de nuestra gente, por todo lo mejor para los vizcainos.
Hoy, ayer y en el futuro, Vizcaya.
Siempre Vizcaya.

**BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA** CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA